



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

2021eko MAIATZAREN 25eko OHIKO OSOKO BILKURA **LEHEN DEIALDIA**

Artzibarko udaletxean, bi mila eta hogeitabateko maiatzaren hogeita bosteko hamabietan, Artzibarko Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko, legean agindu bezala, eta lehen deialdian.

MAHAIBURUA: Alkate-Udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

Maria Isabel Cañada Zorrilla
Juan Jose Echavarren Salvador
Garoa Gartziandia Agirrezabala
Francisco Javier Erro Remirez
Carlos Iriarte Iraceburu
Clara Ruiz de Gauna Borreguero

Idazkaria: Joana Estanga Urroz

Alkate udalburuak gai zerrenden gaiei ekin die. Hona hemen:

1.- Aurreko bilkuretako aktak irakurri eta onestea.

2021eko martxoaren 30ean egindako osoko bilkura arruntaren akta ez da irakurri zinegotziek aldeztu aurretik haren fotokopia jaso dutelako, bilkura honetako deialdiarekin batera. Alkate udal buruak galdetu du zinegotziren batek aurreko bilkuren aktari oharpenik egin nahi dion. Inork ez du ezer esan eta bozketa egin ondoren akta aho batez onetsi da eta bertan izan ziren guztiek sinatu dute.

2.- Alkatearen ebazpenak Osoko Bilkuraren ezagumendurako

Alkateak honako ebazpenen inguruko informazioa eman du, osoko bilkurak jakin dezan:

- 2/2021 Ebazpena, 2021eko apirilaren 6koa, Urizko 23 poligonoko 38 lurzattia banantzeko txosten faboragarria emanaz, hiri-lurzatiari dagokionez
- 3/2021 ebazpena, 2021eko apirilaren 6koa, Nagoren San Julian 92 (5 poligonoko 316 lurzattia) helbideko etxebizitzan instalazio fotovoltaikoa jartzeko obra baimenari txosten faboragarria emanaz.
- 4/2021 ebazpena, 2021eko apirilaren 20koa, Hiriberriko San Andres 3 (34 poligonoko 3 lurzattia) helbideko etxebizitza handitzeko obrak legeztatze baimenari txosten faboragarria emanaz.
- 5/2021 ebazpena, 2021eko apirilaren 20koa, 2020ko aurrekontua kitatzea onesten duena.
- 6/2021 ebazpena, 2021eko maiatzaren 4koa, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren kitapena onesten duena.
- 7/2021 ebazpena, 2021eko maiatzaren 4koa, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren kitapena onesten duena.
- 8/2021 ebazpena, 2021eko maiatzaren 4koa, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren kitapena onesten duena.
- 9/2021 ebazpena, 2021eko maiatzaren 4koa, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren kitapena onesten duena.
- 10/2021 ebazpena, 2021eko maiatzaren 4koa, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren kitapena onesten duena.

Alkatearen ebazpenen inguruko informazioa

- 11/2021 ebazpena, Toki Administrazioako Zuzendari Nagusiaren 53/2021 Ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea onesten duena, 2019ko Toki Inbertsioen Planeko libreki erabaki beharrekoetarako diru-laguntza zati bat ukatzeagatik.

Osoko bilkurak alkatearen 11/2021 ebazpena berretsi du aho batez,

3.- 2020ko kontuen onespena

2020ko Kontu Orokorra osatzen duten dokumentuak aztertu ondoren, Kontuen Batzorde Bereziaren txostena aztertu eta jendaurrean hamabost egun baliodunaz



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

egon ondoren, alegaziorik aurkeztu ez dela kontuan hartuta, Udalbatzak aho batez onartu du:

LEHENIK: 2020ko urtealdiko Artzibarko Udalaren Kontu Orokorraren txostena onartzea.

BIGARREN: Haren kopia Tokiko Administrazioko Departamentura igortzea.

4.- 2021eko aurrekontuen aldaketa

Honako aurrekontuko aldaketa proposatu da:

3/2021 Txostena. Kreditu gehigarria:

Hasierako kreditua: 4590.60900 kontu-saila. Herrietan inbertsioak egiteko proiektuak: 800 €.

PARTIDA EKONOMIKOA	GEHIGARRIA
4590. 60900 HERRIETAN INBERTSIO PUBLIKOA EGITEKO PROIEKTUAK	12.000
FINANTZAZIOA	
870000 DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA GO	12.000
GUZTIRA	12.000€

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: 2021eko Aurrekontu Orokor Bakarraren aldaketa txostena hasiera batean onartzea. (3/2021 Txostena)

BIGARREN: Osoko Bilkurak hasiera batean onartu duen aurrekontuaren aldaketak Idazkaritzan jartzea jendaurrean hamabost egun balioduneko epean, aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iragarki Oholean argitaratuz, bizilagunek eta interesdunek espedientea aztertu eta egokiak ikusten duten alegazioak egin ditzaten.

HIRUGARREN: Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontuaren aldaketa behin betiko onetsizat emango da.

5.- Nagoreko ur-biltegirako edateko ur bihurtzeko instalazioa jartzeko adjudikazioa

Ingenieria Eunatek 2021eko apirilean idatzitako memoria baloratua ikusi da. Bertan, Nagoreko giza kontsumorako uraren kalitate eskasaren arazoak konpontzeko instalazio bat jartzeko egin beharreko jarduketak jasotzen dira.

Ikusirik Kontratu Publikoen 2/2018 Legearen 81. artikulua, zenbateko txikiko kontratueterako araubide berezia ezartzen duena, 40.000 eurotik gorakoak ez diren obra-kontratuak hartzen dituena. Horiek izapidetzeko, kreditu-erreserba eta dagokion faktura aurkeztea baino ez da eskatzen.

Udalaren 2021eko ekitaldiko aurrekontu orokor bakarraren 1.6 lotura-poltsan aurrekontu-kontsignazio nahikoa dago.

Alkateak jakinarazi du, gainera, Nafarroako Gobernuko Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak finantzatuko duela. Horretarako, izandako elkarrizketen arabera, zuzendari nagusiak laster emango du ebazpena, eta hitzarmena sinatuko da. Udalbatzak urtarrilean egindako osoko bilkuran onartu zuen hitzarmenaren zirriborroa.

Eztabaida hasita, memorian deskribatutako jardueri ekiteko beharra eta premia ikusita, aho batez erabaki da:

LEHENIK: Ecoytec Aguas S.L.U. enpresari (helbidea: Azagrako industrialdea, B kalea, 1, Azagra, Nafarroa) esleitzea Nagoren etxeko kontsumorako ura tratatzeko instalazioa jartzeko obra, haren kostua 36.000,01 eurokoa (BEZik gabe) delarik, enpresak emandako aurrekontuaren arabera.

BIGARREN: Ecoytec Aguas SLU enpresari erabaki honen berri ematea, dagozkion ondorioak sor ditzan.

6.- 2021eko baso lanen adjudikazioa, hartu beharreko erabakiak

a)8 Neurria-abeltzaintza garbiketak eta hertsia

Ingurumeneko zuzendari nagusiaren apirilaren 8ko 43/2021 Ebazpena ikusita, zeinaren bidez baimendu eta eman baitziren 2020-2021 aldirako baso-lanetarako laguntzak, Artzibarko Udalak abeltzaintzako sasi-garbiketak egiteko proiektua aurkeztu zuen.



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

Alkate jaunak azaldu du 8. neurrian, abeltzaintzako sasi-garbiketak egiteari buruzkoan, laguntza eskatu zela Azparrenen itxitura batzuk egiteko, eta, azkenean, Kontzejuak atzera egitea erabaki zuela. Arrietako udal-mugardean aurrekontu bat prestatu zen, sastrakak kentzea teknikoki ezinezkoa zen lursail batzuetan, azalera harritsuak eta zailak zirelako.

Proiektua egokitu da. Proiektu berriaren aurrekontua a 39.395,67 eurokoa da (BEZ kanpo).

Ikusirik Kontratu Publikoen 2/2018 Legearen 81. artikulua, zenbateko txikiko kontratueterako araubide berezia ezartzen duena, 40.000 eurotik gorakoak ez diren obra-kontratuak hartzen dituen. Horiek izapidetzeko, kreditu-erreserba eta dagokion faktura aurkeztea baino ez da eskatzen.

Ikusirik Baso Lanen 1722 631001 kontu-sailean badagoela diru nahikorik gastu horiei aurre egiteko.

Arlo horretan lan egiten duten enpresa batzuei eskaintza ekonomikoa eskatu zaienez.

Osokok Bilkurak aho batez erabaki du:

LEHENIK: Kontratua Pablo Erro Urrutia eta Garralda Villanueva M. Cristina SCri (ZIBUR) adjudikatzea, 2021eko maiatzaren 22an aurkeztutako aurrekontuaren arabera, 39.363,64 € (BEZ kanpo), eta 43.300,00 € (BEZ barne).

BIGARRENA: Erabaki honen berri esleipendunari ematea, eta oroitaztea lanak 2021eko irailerako ezinbestean bukatuak egon behar dutela.

b)4 Neurria-Bideak hobetzea

Ingurumeneko zuzendari nagusiaren apirilaren 8ko 43/2021 Ebazpena ikusita, zeinaren bidez baimendu eta eman baitziren 2020-2021 aldiko baso-lanetarako laguntzak, Artzibarko Udalak proiektu bat aurkeztu zuen bideak konpontzeko eta arekak garbitzeko, eta, horretarako, 16.059,67 euroko dirulaguntza eman zen, gehienez ere.

Azpiegituren hobekuntzaren afera biltzen duen 4. Neurriari dagokionez, aurrekontu osoa 29.199.41 eurokoa da (BEZ kanpo), 35.331,29 € (BEZ barne). Alkateak dio adjudikazio berezitua egingen dela, alde batetik bazterren sasi-garbiketa eta bestetik lur-berdinketaren eta ezponden hobekuntza.

Bazterren sasi-garbiketa lanak Pablo Erro Urrutia eta Garralda Villanueva M. Cristina SC-k (ZIBUR) egin ditu, 2021eko apirilaren 28an aurkeztutako aurrekontu ekonomikoaren arabera, hots, 9.324,39 € (BEZ barne).

Orain, gainerako lanak esleitzea proposatzen da, hau da, berdintzea hobetzea, finkatzea eta arekak garbitzea eta egitea. Proiektuaren arabera, kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua 26.006,89 €-koa da.

Ikusirik Kontratu Publikoen 2/2018 Legearen 81. artikulua, zenbateko txikiko kontratuetarako araubide berezia ezartzen duena, 40.000 eurotik gorakoak ez diren obra-kontratuak hartzen dituen. Horiek izapidetzeko, kreditu-erreserba eta dagokion faktura aurkeztea baino ez da eskatzen.

Ikusirik Baso Lanen 1722 6100001 kontu-sailean badagoela diru nahikorik gastu horiei aurre egiteko.

Arlo horretan lan egiten duten enpresa batzuei eskaintza ekonomikoa eskatu zaienez.

Osokok Bilkurak aho batez erabaki du:

LEHENIK: Berdintzea hobetu eta arekak garbitzeko lanen kontratua Excavaciones Abaurrea Slri adjudikatzea, maiatzaren 20an aurkeztutako aurrekontuaren arabera, hots, 26.000 ,00 € (BEZ barne).

BIGARRENA: Erabaki honen berri esleipendunari ematea, eta oroitaraztea lanak 2021eko irailerako ezinbestean bukatuak egon behar dutela.

7.- 2021-2023 Pirinioko Planari laguntzak eskatzea

Ondoren gaia eztabaidatu da eta Pirinioko Planaren diru-laguntzetara proiektu hauek aurkeztea erabaki da:

- Karpak erostea herrietan eta Ibarreko Egunean erabiltzeko.
- Partaidetza plana
- Artzibarkok bideei buruzko informazio esku-orriak

8.- Nagoreko 5 poligonoko 308 lurzatia uzteko eskaera, dagokion erabakia hartzea

Nafarroako Gobernuari Nagoreko 5. poligonoko 308 lursailaren jabetza doan lagatzeko eskatzea proposatzen da, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 44. artikulua eta hurrengoaren arabera.



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

Lurzati hori eskuratzeko helburua da bertan biltegi bat eraikitzea, Artzibarko udalak eta Nagoreko kontzejuak erabiltzeko. Biltegi horretan Udalaren materiala gordeko litzateke, hots, karpak, aulkiak, ibilgailua, puzgarria, etab. Hortaz gain, bigarren solairua egitea proposatu da, erabilera anitzeko aretoa egiteko, erakusketak, bilerak, kultur jarduerak, etab. antolatzeko.

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 44.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, erabilera edo zerbitzua ezartzeko data ezarri behar da, eta erabilera egiteko gehieneko epea ez da inola ere 99 urtetik gorakoa izango.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

LEHENIK: Nafarroako Gobernuak Ondarearen Departamentuari Nagoreko 5. poligonoko 308 lursailaren jabetza doan lagatzeko eskatzea, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 44. artikulua eta hurrengoaren arabera.

BIGARREN: Era berean, 2021eko ekitaldi honetarako erabilera ezartzeko data zehazteko eskatzea, 50 urteko eperako, luza daitekeena.

HIRUGARREN: Alkateari ahalmena ematea txosten honetatik eratorritako dokumentu oro sinatzeko.

9.- Mikel Zabalzaren heriotza ikertzeko eta argitzeko eskatzen duen adierazpena

Aezkoako Batzarre Nagusiak eta Orbaizetako Udalak aztertzeko eta kontuan hartzeko mozio bat aurkeztu dute, hona hemen:

Mikel Zabalza (1952-1985) beste pertsona batzuekin batera atxilotu zuten duela 35 urte ETako kide gisa, eta Donostiako Intxaurrondoko Guardia Zibilaren kuartelera eraman zuten. Mikel Zabalza bizirik sartu zen kuartelera eta, 20 egun geroago, hilda agertu zen Bidasoa ibaian.

Baina zer gertatu zitzaion Mikel Zabalzari? Gaur egun indarrean dagoen bertsio ofizialaren arabera, inguru horretan ETaren zulo bat egiaztatzen ari zirela, Zabalzak guardia zibilengandik ihes egin zuen, ibaira erori zen eta itota hil zen. Atxilotuek torturak salatu zituzten, eta gizartearen zati handi batek ez zuen inoiz sinetsi Guardia Zibilaren bertsioa.

Pùblico hedabideak 2021eko otsailaren 22an argitaratu zituen grabazio batzuek agerian uzten dute Mikel Zabalzaren heriotza Guardia Zibilaren Intxaurrondoko kuartelean jasandako torturengatik izan zela. Grabaketa Luis Alberto Perote Mikel Zabalza atxilotu zuten garaian CESIDeko (Defentsaren Informaziorako Goi Zentroko) koronelaren eta Galindoren aginduetara zegoen Pedro Gomez Nieto Guardia Zibileko kapitainaren arteko elkarrizketa da. Grabazio horretan esaten denez, Intxaurrondon jasandako torturen ondorioz hil zen Zabalza; zehazki, buruan poltsa aplikatzeagatik. Grabazio berean Gomez Nieto entzun daiteke "eskuetatik joan zaie, galdeketa geratu zaie" esanez.

Nahiz eta zantzu guztien arabera Zabalza Intxaurrondoko kuartelean jasandako torturen ondorioz hil zen, 35 urte geroago, familiak oraindik ez du errekonozimendu ofizialik eta ez dute inor zigortu. Zabalza familiak ez du egiarik, ez eta, beraz, justiziarik eta erreparaziorik ere. Auzitegiek behin baino gehiagotan erabaki dute auzia artxibatzea, froga faltagatik, gertatutakoa argitu gabe eta erantzukizunik zehaztu gabe. Heriotza horren zigorgabetasunak ezin du aurrera jarraitu.

Gure ustez, grabazio horiek funtsezkoak izan daitezke kasuan, eta kontuan hartu beharrekoak dira.

Horregatik, honako hau erabaki da:

- 1.- Tortura Tegez kontrako indarkeria eta giza eskubideen urraketa gisa errefusatzeari.*
- 2.- Espainiako Gobernuari espediente honekin zerikusia duen guztia desklasifikatzeko eskatzea.*
- 3.- Guardia Zibiteko kapitain Gómez Nietok eta garai harlan CESIDeko Juan Alberto Peroteren koronel buruak parte hartzen zuten audioak agertu ondoren, audioen edukia sakon ikertzeko eskatzea, Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotzaren inguruko egia jakiteko.*

Osokok Bilkurak aho batez erabaki du:

LEHENIK: Mozioa onartzea goian aipatu moduan.

BIGARREN: Erabaki honen berri Aezkoako Batzarre Nagusiari eta Orbaizetako Udalari ematea, helbide elektronikoko hauetara bidaliz: mikelzabalzagogoanhe@gmail.com y aezkoakobatzordea@gmail.com.

10.- Ermitagainako Txirrindulari Klubak egindako eskaera

Ermitagaina Txirrindulari Klubak, egoitza Iruñean duenak, eskaera bat aurkeztu du Iruñeko Itzuliaren XXXV. edizioa antolatzeko, uztailaren 28, 29 eta 30ean. Proposatuta dute ibilbidearen zati bat Artzibartik izatea (oraindik erabaki gabe dago), ibarrera txirrindularitza-jarduerara bat ekartzeaz gain ibarra sustatzeko balioko duelakoan.

Aurrekontua oraindik itxi gabe dago eta Artzibarko Udalari ekarpen ekonomikoa egitea eskatzen diote.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

LEHENIK: Ermitagaina Txirrindulari Klubari adostasuna adieraztea ibilbidearen zati bat Artzibartik egiteko.

BIGARREN: Ermitagaina Txirrindulari Klubari 300 euroko ekarpen ekonomikoa ematea.



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

HIRUGARREN: Ermitagaina Txirrindulari Klubari erabaki honen berri ematea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

11.- 2021eko Ibarreko Eguna ospatzeko erabakia

Gaia erabaki gabe gelditu da Kontzejuei galdetuko baitzaie ea bizilagunek gaiari buruz zein iritzi duten eta egun horretan zer egin ahal den baloratzeko.

12.- Alkatetzaren txostenak

13.- Kide anitzeko organoetako eta bestelako ordezkarien informazioa

14.- Eskaerak eta galderak.

Ez dago

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hamalauak eta berrogeita hamarrean, eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut.